



2.3 FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gu hainbat elkarteekin kontaktutan jarri beharko gara diru laguntzak eta gauza gehaiago lortzeko; alde batetik, Gaintzako udalarekin, eskolekin, landako elkarteekin, herriko baserriekin eta inguruko elkarteekin kontaktuan jartzea izango da gure eginkizuna.

Hasteko herriko alkateari helburua azalduko diogu eta laguntza eskatuko diogu lur eremuak erabiltzeko, aurrekontu bat emateko eta promozionatzeko. Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin eskolekin kontaktuan jarriko gara eta udalekuetan parte hartzera animatuko ditugu gaztetxoak. Era berean, landako elkarteekin kontaktuan jarriko gara; izan ere, Goierriin badaude elkarte batzuk non, landa, nekazaritza eta baserriak banatzen dituzten. Gure helburuetako bat horietako batekin kontaktuan jartzea izango da. Bestalde, gertuko baserriei laguntza eskatuko diegu, beraiekin harremanetan jarriko gara eta helburua umeek baserriak bixitatzea eta bertan ekintzak egitea izango da. Azkenik, inguruko elkarte batzuekin kontaktuan jarriko gara, eta hauen laguntza baliatuz, umeentzat entretenigarriak diren ekintzak antolatuko ditugu.

Harremanak lortzeko hainbat ideia burutuko ditugu. Lehenik eta behin, aurkezpen labur bat egingo dugu zeinetan, gure ideia azaltzen duen. Ondoren udalari eta elkartei aurkeztuko diegu, haien baieztapena jaso ahal izateko, proiektuarekin jarraitu dezakegula jakiteko. Bestalde, proiektuaren onurak azalduko ditugu, hau da, gaintzako udalarekin bilera egiten dugunean proiektuak dituen onurak azalduko dizkiegu, hain zuzen ere, herriari promozioa ematea, tradizioak mantentzea eta baserriari eta nekazaritzari babesa ematea. Horrez gain, kontaktu zerrenda bat sortuko dugu, Gaintzako udaleko arduradunekin, nekazari eta baserriekin lotuta dauden elkarteekin, gertuko baserriekin, ekintza ezberdinak antolatzen dituzten elkarteekin eta amaitzeko inguruko eskolekin. Hainbat elkarteek lagundu dezakete,

adibidez, udaletxeak lurak utz diezaizkiguke, promozioak egin eta aurrekontu bat emanez lagundu. Gainera, baserritarrak, gure baserriko bisitak antolatzen lagundu dezakete. Amaitzeko, eskolak, gure udalekuetan parte hartuko duten jende berria erakartzen lagunduko digute eta batera egin behar ditugun jarduerak antolatzen ere lagunduko digute.